

ADEGUI-REN EMAITZA HARTZEAN

(Donostian, urriak 6, 1978)

Jaunak:

Zuek Euskaltzaindiari eman nahi izan diozuen emaitza hartzerakoan, nahasia bezala ikusten dut neure burua, zer egin eta zer esan ez dakidala. Alde batetik, zuen eskupekoa ez da hutsaren pare. Eta bestetik, nik badakit —ondo jakin ere— eskupeko hori ez dela guregatik eta ez guretzat ere. Gure Elkargoan irudikatua ikusten duzuen izpirituzko ondasun horren alde —euskararen alde, alegia— izan da zuen gaurko emaitza.

Eta hunelako oparia jasotzeaz nik badakit zor berri batekin, erantzunkizun larri batekin eta zama astun batekin zamatatuak gelditzen garela. Bai. Gure herriaren aurrean erantzunkizun berariazko eta aparteko bat hartzen dugu gaur.

Zor huni, geure ahalen neurrian, kemen eta oldar berriz erantzuten saiatuko garela hitz ematen dizuet.

Zuek, berriz, zeuen opariarekin gauza bat aditzera eman duzue: euskararen balioari buruz baduzuela kontzientzia bat bizi-bizia eta ernea. Hortan ispilu eta eredu azaldu zarete. Eskerrik asko, jaunak, bihotz-bihotzetik!

Ea guztion artean euskara bere egoera ahuletik atera eta beste egoera hobeara batera eramaten asmatzen dugun! Halabiz.

Euskaltzainburuak